



EUSKARALDIA

2022

ESAZU HITZ BAT

Euskaldunaren kupo hori dut betea
Esanekoa izan eta bakea
Aski al da "maite dut" ozen esatea?
Euskaraz bada zerbait, hitzekoa esatea.

Esazu hitz bat ta sendotuko naiz
Hitz bakar batek sua pizten du maiz
Martxan ipini aho ta belarri
Ari entzun, entzun ari.
Zu etxerako ta zu kalerako
Jolaserako eta lanerako
Martxan ipini aho ta belarri
Ari entzun, entzun ari.

Sagarra dugu "manzana" ta ikatza da
"carbón"
"Charbon" dugu ikatza ta sagarra
"pomme"
Mende erdi bat joan da, joan da ta hor
konpon?
Beti toki berean, ezin gintezke egon!

Esazu hitz bat ta sendotuko naiz
Hitz bakar batek sua pizten du maiz
Martxan ipini aho ta belarri
Ari entzun, entzun ari
Zu etxerako ta zu kalerako
Jolaserako eta lanerako
Martxan ipini aho ta belarri
Ari entzun, entzun ari.

Ordezko guraso bi: gaztelera, frantses
Nire erabaki ta nire borondatez
Banoa aspaldiko desioa betez
Agur aita ta ama, ondo bizi bitez.

EUSKARALDIA!

Erronka hau jo, ez gorde golkoan
Garaipen txiki asko da jokoan
martxan ipini aho ta belarri
Ari entzun, entzun ari.
Erronka hau jo, ez gorde golkoan
Garaipen txiki asko da jokoan
Martxan ipini aho ta belarri
Ari entzun, entzun ari



EUSKARALDIA 2022

BIZI GANORAZ

Hona aukera: jalgi hadi euskaraz!
Laga erdara, bizi ganoraz.
Ez egin galde gu zenbat lagun ote;
hirekin asko izan gaitzke.
Itsasoan ura ta harea;
Euskara ere gurea;
denona da kaleko hondartza;
gerorantza
goazen Korrika!

Hona aukera: jalgi hadi euskaraz!
Laga erdara, bizi ganoraz.

Hona aukera: jalgi hadi euskaraz!
Utzi erdara, bizi ganoraz.
Denon arnasaz ta hire izerdiaz
egina kasi bide erdia.
Basoetan pinu ta pagoa;
Euskara da geroa;
laster bedi karrikako oihana
euskalduna
goazen Korrika!

Hona aukera: jalgi hadi euskaraz!
Laga erdara, bizi ganoraz.

Hona aukera: jalgi hadi euskaraz!
Laga erdara, bizi ganoraz.
Eskuz-ezku eta azkar pausoa
egin dezagun bide osoa.
Haizez doaz kantu ta oihuak;
jaso denok eskuak;
gure sua euskararen garra
helmugara
Goazen Korrika!

Hona aukera: jalgi hadi euskaraz!
Laga erdara, bizi ganoraz (bi)

BAGARE

Araban bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire
ta Bizkaian bagara.
Araban bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire
ta Bizkaian bagara
baita ere Lapurdi ta Nafarran.

Guztiok gara eskualdun
guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu_hizkera.
Guztiok gara eskualdun
guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu_hizkera.

Araban bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire
ta Bizkaian bagara
baita ere Lapurdi ta Nafarran.

Herri bat dugu osatzen
beragan gara sentitzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun hutzi ondatzen
bagare bagera bagire bagara
euskeraz azkartzeko oraintxe dugu aukera
bagare bagera bagire bagara
Euskadi askatzeko oraintxe dugu aukera.



EUSKARALDIA 2022

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas,
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskaraz
hitz egiterik ez bada,
bota dezagun demokrazia
zerri askara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik
behar duguna,
ez al dakizu euskara dela
Euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena,
ez al dakizu euskara dela
Euskaldun egiten gaituena?

EUSKALDUNAK GARA (Pirritx eta Porrotx)

Akaso gu ez gara handienak,
ez gara agertzen mapa mundian,
akaso gu ez gara politenak,
ez gara ibiltzen pasareletan.

Baina gure herri ederrean
barra-barra ditugu
festa eta umorea.
Nongotarrak garen galdetzean
harrotasunez esan:
euskaldunak gara!

Akaso ez gara karibekoak
ez dugu ongi dantzaten txa-txa-txa,
akaso ez gara wonderfulenak
ez dugu atsegin hot-dog saltxitxa.

Baina gure herri ederrean
barra-barra ditugu
festa eta umorea.
Nongotarrak garen galdetzean
harrotasunez esan: euskaldunak
gara!